2000

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Turismo Sailordetza
Viceconsejería de Turismo

nº 5

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco




## Turista atzerritarrak Euskadin
### FRONTUR 1999

## Los turistas extranjeros en el País Vasco
### FRONTUR 1999

MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

© "Argazki" Eusko Jaurlaritza • Gobierno Vasco / Mikel Arrazola.

# FRONTUR operazioa

# La operación FRONTUR.

Turismoak Euskadiko garapen-motor eta aberastasun-iturri gisa duen garrantzi geroz eta handiagoak, bai eta azken urteotan Euskadiren erakargarri turistikoa sendotzeko eginiko inbertsioak ere, bisitatzen gaituzten turista atzerritarren portaera eta denboran zehar izan duten eboluzioarekiko gaur eguneko ezagutza sakondu eta hobetzeko egiten den edozein saio justifikatzen du.

Testuinguru honetan kokatu behar dugu lan hau, zeinean 1998. eta 1999. urteetarako Azterlan Turistikoen Institutuak (Instituto de Estudios Turísticos) landutako Mugetako Mugimendu Turistikoen Estatistikak (FRONTUR) Euskal Autonomia Erkidegorako bereziki eginiko esplotazio batean lorturiko emaitzak barne hartzen diren.

Era berean, Azterlan Turistikoen Institutuak eskainitako laguntza eskertu nahi dugu, horri esker eskueran izan baititugu turismoaren esparruko nazio-mailako panorama estatistikoko estatistika sendoenetako baten oinarri-fitxategiak.

*La importancia creciente del turismo como motor de desarrollo y fuente de riqueza en Euskadi, así como la inversión realizada durante los últimos años con el objeto de enriquecer el atractivo turístico del País Vasco, justifican cualquier esfuerzo que se realice para profundizar y mejorar el conocimiento actualmente existente en relación con el comportamiento de los turistas extranjeros que nos visitan y su evolución a lo largo del tiempo.*

*En este contexto es necesario enmarcar el presente trabajo en el que incluyen, para los años 1998 y 1999, los resultados obtenidos de una explotación específica para la Comunidad Autónoma Vasca de la Estadística de Movimientos Turísticos en Fronteras (FRONTUR) elaborada por el Instituto de Estudios Turísticos.*

*Es necesario, así mismo, agradecer la colaboración prestada por el Instituto de Estudios Turísticos, gracias a la cual ha sido posible acceder a los ficheros de base de una de las estadísticas más robustas del panorama estadístico nacional en el ámbito del turismo.*

### *Fitxa teknikoa:*

*FRONTUR-en estatistika oinarrizko iturri ofiziala da muga desberdinetatik Estatura hilabetez hilabete iristen diren fluxu turistikoak neurtzeko. Estatistika etengabea da eta 1997/2000 Plan Estatistiko Nazionalaren barruan dago.*

*Argitalpen honetan aurkezten diren taulak egiteko erabilitako informazioa bi inkesta desberdinetakoa da, bata sarreran eginikoa eta bestea irteeran, biak ere FRONTUR-en barruan.*

*Irteerako inkestaren kasuan erabilitako laginketa-oinarriak Euskadi bisitatu zuten turisten portaerarekiko ondokoa erakusten digu:*

- *4.478 kasu 1998an.*
- *5.535 kasu 1999an.*

### *Ficha técnica:*

*La estadística de FRONTUR es la fuente oficial básica para la medición de los flujos turísticos que llegan al Estado mes a mes por las distintas fronteras. Tiene carácter continuo y forma parte del Plan Estadístico Nacional 1997/2000.*

*La información utilizada para la realización de las tablas que se presentan en esta publicación procede de dos encuestas distintas, una encuesta a la entrada y otra a la salida, incluidas ambas dentro de FRONTUR.*

*La base muestral utilizada en el caso de la encuesta de salida en relación con el comportamiento de los turistas que visitaron el País Vasco supone:*

- *4.478 observaciones en 1998.*
- *5.535 observaciones en 1999.*

# Turista atzerritarren sarrera mugak kontuan izanda

# La entrada de turistas extranjeros por fronteras

Turista atzerritarren sarrerak Euskadin hilabetez hilabete gora egin du azken bi urteotan, baina betiere gehienbat oporraldietakoa den turismo baten urtaroko patroi ezaugarrienen barruan, urtean zehar bidaiarien fluxuek duten banaketari dagokionez.

Erabilitako sarbidea alde batera utzita, urterokotasunaren fenomenoa presente dago aireportuz eginiko sarreretan zein errepidez eginikoetan. Dena den, errepidez eginiko etorreretan duen intentsitate handiagoa azpimarratu behar da, hura baita Euskadira datozen turisten sarbide nagusia, urteko turisten guztirakoaren %65etik gora, hain zuzen.

Bi sarbide nagusiek Euskadirako etorreren osotasunean duten pisuari dagokionez, aztertutako bi urteetan erakusten duten egonkortasun-maila handia azpimarratu behar da. Bi kasuetan ere, errepidez eginiko sarrerek aireportuz eginikoak bikoizten dituzte urteko sarreren osotasunean.

*La entrada de turistas extranjeros en el País Vasco mes a mes a lo largo de los últimos dos años no ha dejado de crecer pero manteniéndose siempre, en cuanto a la distribución de los flujos viajeros a lo largo del año se refiere, dentro de los patrones estacionales más característicos de un turismo mayoritariamente de tipo vacacional.*

*Independientemente de la vía de acceso utilizada, este fenómeno de la estacionalidad está presente tanto en los accesos por aeropuerto como en los que se realizan por carretera. Sin embargo, es necesario destacar la mayor intensidad que alcanza en las llegadas por carretera, principal vía de acceso de los turistas que acceden al País Vasco, con más del 65% del total de turistas del año.*

*En cuanto al peso que las dos principales vías de acceso tienen en el conjunto de llegadas al País Vasco, es necesario destacar el alto grado de estabilidad que demuestran en los dos años objeto de estudio. En ambos casos los accesos por carretera duplican a los de aeropuerto en el conjunto de entradas del año.*

Euskadi bisitatzen duten turistak sarbidearen arabera. 1998/1999. urteak
*Turistas que visitan el País Vasco según vía de acceso. Años 1998/1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

*1. 1999. urteari buruzko informazioa behin-behinekoa da, eta horrenbestez aldaketaren bat izan dezake, nahiz eta ez den esanguratsua izango argitaratutako informazioarekiko. Beste iturri estatistikoekin konparatzeko garaian, esate baterako EUSTAT-en Establezimendu Turistiko Hartzaileen inkestarekin edo INEren Hoteletako Betetze-mailaren Inkestarekin, FRONTUR-en kasuan aztertu beharreko aldagaia bidaiari atzerritar guztiak dira, txangozaleak eta turistak, erabilitako ostatu-mota edozein izanda ere.*

*1.- La información relativa al año 1999 tiene caracter provisional, por lo que podría verse sometida a alguna revisión, que en ningún caso supondría alteraciones significativas respecto de la información publicada. A la hora de comparación con otras fuentes estadísticas con son la encuesta de Estabecimientos Turisticos Receptores del EUSTAT o la Encuesta de Ocupación Hotelera del INE, es necesario señalar que en caso de FRONTUR, la variable objeto de análisis son todos los viajeros extranjeros, excursionistas y turistas, independientesmente del tipo de alojamiento utilizado.*

Bidaiarien etortze handiena uda-partean izaten da, normala denez, eta horren barruan uztail eta abuztuko hilabete nagusietan, normalean oporraldietakoak diren denboraldiekin bat etorriz. Negu-parteak eta Aste Santuak ere fluxu turistiko garrantzitsuak biltzen dituzte hilabete jakinetan.

Aireportuen bidezko turisten etorreren fluxuek duten aldakortasun txikiagoa sarbide honetan negozio-bidaiek duten pisu handiagoari zor zaio neurri handi batean, oporraldiengatiko bidaien oszilazio ziklikoek ez baitute hainbesterainoko eraginik.

Euskadira datozen turistak Frantziatik datoz, eta errepideko lurreko mugak erabiltzen dituzte sarbide gisa, hurbiltasun geografikoaren ondorioz.

Bigarrenik Erresuma Batutik datozen turistak ditugu, atzetik alemanak dituztela, Estatuaren bi merkatu nagusiak, alegia. Bi azken kasu hauetan, gehien erabilitako sarbidea aireportua da.

*La máxima afluencia viajera se produce como es natural en la temporada de verano, y dentro de ella en los meses centrales de julio y agosto, coincidiendo con los periodos tradicionalmente vacacionales. También la temporada de invierno y la Semana Santa concentran flujos turísticos importantes en determinados meses.*

*La menor variabilidad que presentan los flujos de llegadas de turistas por aeropuertos a lo largo del año responde en buena parte, al mayor peso que tienen en esta vía de acceso los viajes de negocios, menos sujetos a las oscilaciones cíclicas de los viajes por motivos vacacionales.*

*Los turistas que llegan al País Vasco que proceden de Francia, utilizan como vía de acceso las fronteras terrestres por carretera, como consecuencia de su cercanía geográfica.*

*En segundo lugar destacan los turistas procedentes del Reino Unido, seguidos de los alemanes, los dos principales mercados del Estado. En estos dos últimos casos, la vía de acceso mayoritariamente utilizada es el aeropuerto.*

*Euskadi jomugatzat duten turista atzerritarren sarrera sarbidearen arabera. 1999*
*Entrada de turistas extranjeros con destino al País Vasco según vía de acceso. 1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

**Euskadi jomugatzat duten turista atzerritarren sarrera sarbidearen arabera.**

**Entradas de turistas extranjeros con destino al País Vasco por meses según vía de acceso. Euskadi.**

| | | | SARBIDEA / *VÍA DE ACCESO* | |
|---|---|---|---|---|
| | | Guztira *Totales* | Errepidea *Carretera* | Aireportua *Aeropuerto* |
| 1998 | Guztira / Total | 710.676 | 485.982 | 224.694 |
| | Urtarrila / Enero | 13.638 | 4.615 | 9.023 |
| | Otsaila / Febrero | 20.039 | 8.123 | 11.916 |
| | Martxoa / Marzo | 35.554 | 16.853 | 18.701 |
| | Apirila / Abril | 48.392 | 34.096 | 14.296 |
| | Maiatza / Mayo | 73.045 | 49.292 | 23.753 |
| | Ekaina / Junio | 50.310 | 27.630 | 22.680 |
| | Uztaila / Julio | 132.141 | 105.046 | 27.095 |
| | Abuztua / Agosto | 159.200 | 134.061 | 25.139 |
| | Iraila / Septiembre | 52.860 | 32.448 | 20.412 |
| | Urria / Octubre | 54.048 | 33.417 | 20.631 |
| | Azaroa / Noviembre | 31.760 | 16.612 | 15.148 |
| | Abendua / Diciembre | 39.689 | 23.789 | 15.900 |
| 1999 | Guztira / Total | 727.693 | 487.264 | 240.429 |
| | Urtarrila / Enero | 23.634 | 11.699 | 11.935 |
| | Otsaila / Febrero | 26.013 | 12.147 | 13.866 |
| | Martxoa / Marzo | 40.978 | 21.313 | 19.665 |
| | Apirila / Abril | 44.258 | 30.478 | 13.780 |
| | Maiatza / Mayo | 68.076 | 44.177 | 23.899 |
| | Ekaina / Junio | 53.037 | 30.610 | 22.427 |
| | Uztaila / Julio | 115.270 | 90.839 | 24.431 |
| | Abuztua / Agosto | 141.305 | 118.649 | 22.656 |
| | Iraila / Septiembre | 66.245 | 45.904 | 20.341 |
| | Urria / Octubre | 55.816 | 25.757 | 30.059 |
| | Azaroa / Noviembre | 49.976 | 33.743 | 16.233 |
| | Abendua / Diciembre | 43.085 | 21.948 | 21.137 |

Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

*Turistak eta txangozaleak. Euskadi 1999*
*Turistas y excursionistas. Euskadi 1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

*Euskadi jomugatzat duten turista atzerritarren sarrera sarbidearen arabera. Euskadi 1999*
*Entrada de turistas extranjeros con destino Euskadi, según vía de acceso. Euskadi 1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

# Txangozale atzerritarrak

# Los excursionistas extranjeros

Euskadiko atzerritarren eskaera turistikoaren ezaugarrietako bat, Euskadin eguneko txangozale edo bidaiariek duten pisu handia da, eskualde mugakidea izatearen ondorioz. Frantziar nazionalitatea duten gehienak errepidez iristen dira eskualdea bisitatu, bertan jan, dibertitu, erosi, lan egin, familiartekoak edo lagunak bisitatzeko asmoz eta abar, beren jatorrizko lekuetara egun berean itzultzeko.

Turisten kasuan bezala, txangozaletasunak gorakada handia izan du Euskadin azken bi urteotan, bidaiari hauetan ere ematen den urterokotasuna aldatzen ez duena, nahiz eta hauen kasuan intentsitate txikiagokoa den.

*Uno de los rasgos que caracterizan la demanda turística extranjera del País Vasco como consecuencia de tratarse de una región fronteriza, es el elevado peso que tienen en Euskadi los excursionistas o visitantes de día. De nacionalidad francesa llegan en su mayoría por carretera con objeto de visitar la zona, comer, divertirse, comprar, trabajar, visitar a familiares o amigos, etc., y regresar a sus lugares de origen en el día.*

*Al igual que en el caso de los turistas, el excursionismo ha experimentado en estos dos últimos años un fuerte crecimiento en el País Vasco, que no altera la estacionalidad de la que también participan aunque con menor intensidad estos viajeros.*

*Euskadi bisitatzen duten txangozaleak sarbidearen arabera. 1998/1999. urteak*
*Excursionistas que visitan el País Vasco según vía de acceso. Años 1998/1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

*Txangozaleen sarrera hilabetea kontuan izanda. 1999. urtea.*
*Entrada de excursionistas por meses. Año 1.999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

**Euskadi jomugatzat duten txangozaleak atzerritarren sarrera sarbidearen arabera. Euskadi**

**Entradas de excursionistas extranjeros con destino al País Vasco por meses según vía de acceso. Euskadi.**

| | | | SARBIDEA / *VÍA DE ACCESO* | |
|---|---|---|---|---|
| | | Guztira *Totales* | Errepidea *Carretera* | Aireportua *Aeropuerto* |
| 1998 | Guztira / Total | 5.865.300 | 5.861.938 | 3.448 |
| | Urtarrila / Enero | 408.775 | 408.752 | 23 |
| | Otsaila / Febrero | 423.869 | 423.767 | 102 |
| | Martxoa / Marzo | 415.670 | 415.414 | 256 |
| | Apirila / Abril | 501.830 | 501.482 | 348 |
| | Maiatza / Mayo | 493.384 | 493.167 | 217 |
| | Ekaina / Junio | 418.134 | 417.801 | 333 |
| | Uztaila / Julio | 589.713 | 589.295 | 418 |
| | Abuztua / Agosto | 892.899 | 891.559 | 1340 |
| | Iraila / Septiembre | 486.400 | 486.145 | 255 |
| | Urria / Octubre | 431.647 | 431.569 | 78 |
| | Azaroa / Noviembre | 360.527 | 360.471 | 56 |
| | Abendua / Diciembre | 442.538 | 442.516 | 22 |
| 1999 | Guztira / Total | 6.021.544 | 6.018.737 | 2.807 |
| | Urtarrila / Enero | 387.303 | 387.127 | 176 |
| | Otsaila / Febrero | 383.588 | 383.444 | 144 |
| | Martxoa / Marzo | 411.767 | 411.390 | 377 |
| | Apirila / Abril | 498.645 | 498.212 | 433 |
| | Maiatza / Mayo | 544.480 | 544.369 | 111 |
| | Ekaina / Junio | 483.274 | 483.153 | 121 |
| | Uztaila / Julio | 619.214 | 618.721 | 493 |
| | Abuztua / Agosto | 887.978 | 887.612 | 366 |
| | Iraila / Septiembre | 498.418 | 498.212 | 206 |
| | Urria / Octubre | 458.450 | 458.348 | 102 |
| | Azaroa / Noviembre | 434.616 | 434.581 | 35 |
| | Abendua / Diciembre | 413.811 | 413.568 | 243 |

Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

## Txangozaleen bisitaren arrazoiak

## Motivos de visita de los Excursionistas

Euskadi bisitatzen duten txangozaleek adierazten dituzten arrazoien artean lehenik erosketak eta hainbat motatako zerbitzu pertsonalak ditugu, eta ondoren aisia, bere alderdi desberdinekin. Atzerago bada talde garrantzitsu bat lan-arrazoiengatik eta familiartekoak edo lagunak bisitatzeko bidaiatzen duela adierazten duena.

Azken bi urteotan Euskadi bisitatzen duten txangozaleek adierazitako arrazoien egonkortasuna garbi geratu da koadroan.

*Entre los motivos que declaran los excursionistas que visitan el País Vasco destacan en primer lugar las compras y servicios personales de diverso tipo, seguidos a continuación del ocio, en sus distintas vertientes. A mayor distancia también existe un importante colectivo que declara viajar por motivos de trabajo, y para visitar familiares o amigos.*

*La estabilidad en cuanto a los motivos declarados por los excursionistas que vistan el País Vasco en los dos últimos años queda patente en el cuadro.*

*Euskadi bisitzen duten txangozaleak bisitaren arrazoiaren arabera. 1999. urtea*
*Excursionistas que visitan el País Vasco por motivos de la visita. Año 1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

## Txangozale atzerritarren bisita-maiztasuna

## Frecuencia de visita de los excursionistas extranjeros

Euskadira iristen diren txangozale gehienak ohizko bisitariak dira, astean behin datozenak, hilabetean behin edo bai eta egunero ere. Eguneroko maiztasuneko txangozale-talde honek urtean zehar mugetan bisitarien fluxu egonkorra dagoela adierazten du, oporraldietako koiuntura bazter utzita. Espero zitekeen bezala, eguneroko maiztasuneko txangozaleen artean ikasketa- eta lan-arrazoiak dira nagusi (mugakideen taldea).

*La mayor parte de los excursionistas que llegan al País Vasco son visitantes habituales, que vienen una vez por semana, una vez al mes o incluso todos los días. Este último colectivo de excursionistas de frecuencia diaria supone la existencia de un flujo de visitantes estable en las fronteras a lo largo del año, al margen de la coyuntura vacacional. Tal y como cabría esperar, dentro de los excursionistas de frecuencia diaria destacan los motivos de estudio y trabajo (colectivo de fronterizos).*

*Euskadi bisitatzen duten txangozaleak bisiten maiztasuna kontuan izanda. 1999. urtea.*
*Excursionistas que visitan el País Vasco por frecuencia de las visitas. 1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

## Turista atzerritarren bisita-arrazoi nagusia

## Principal motivo de visita de los turistas extranjeros

Turista atzerritarrek Euskadira egiten duten bisita oporraldiei lotutako arrazoiei zor zaio gehienetan. Hala adierazten du bisitatzen gaituzten turisten %60ak baino gehiagok. Estatu osoan bidaia-mota hau etorreren %90 eskas da.

*La visita de los turistas extranjeros al País Vasco responde en la mayoría de los casos a motivos puramente vacacionales. Así lo declaran más de un 60% de los turistas que nos visitan. En el conjunto del Estado este tipo de viajes casi roza el 90% de las llegadas.*

Oporraldiekin lotutako arrazoien ondoren, bigarren arrazoia garrantziari dagokionez mundu profesionalari lotuta dago, izan ere turismo-mota honek Euskadin duen pisu erlatiboa Estatu osorako duen pisuaren oso gainetik baitago.

Negozio-bidaiek Euskadin duten garrantzia turismo honek negozioetako turismo sendoa duten autonomia-erkidegoetan (Madrilen, esate baterako) lortzen duenarekin konpara daiteke soilik.

Euskadik hartzen duen turismoaren beste ezaugarri bat, Frantziarekin mugakidea den eskualde bati dagokiona, familiartekoei edo lagunei eginiko bisitak direla-eta turista atzerritarren etorrera handiagoa da, Estatu osoarekin konparatuz gero.

Garrantzi erlatibo txikiagoa dute ikasketei, erlijio kontuei, osasun-tratamenduei eta beste hainbat arazori loturako bidaiek.

Euskadik jasotzen duen turismoaren ezaugarrietako bat urtetik urtera negozio-turismoak duen geroz eta pisu handiagoa da. Bidaia-mota honek aisialdikoen oso bestelako profila du, bereziki errentagarria da, eta aldi berean Euskadiren ekonomiaren martxa onaren adierazlea

*Tras los motivos de tipo vacacional, el segundo tipo de motivos en importancia son de índole profesional, un tipo de turismo cuyo peso relativo en el País Vasco se sitúa muy por encima del peso que tienen para el conjunto del Estado.*

*La importancia de los viajes de negocios en el País Vasco sólo es comparable al que este turismo alcanza en Comunidades Autónomas con una fuerte presencia del turismo de negocios como es el caso de Madrid.*

*Otra de las características del turismo que recibe el País Vasco, propia de una región fronteriza con Francia es la mayor afluencia de turistas extranjeros por motivo de visita a familiares o amigos, en relación con el conjunto estatal.*

*Con una importancia relativa menor destacan los motivos por motivo de estudios, religiosos, tratamientos de salud y otros.*

*Uno de los rasgos distintivos del turismo que recibe el País Vasco es el elevado peso que año tras año tiene de forma creciente el turismo de negocios. Un tipo de viajes que con un perfil muy distinto de los puramente de ocio, resulta especialmente rentable al tiempo que supone un buen indicador de la buena marcha de la economía de Euskadi.*

*Euskadi eta Estatua bisitatzen duten turistak bidaiaren arrazoien arabera. 1999. urtea.*
*Turistas que visitan el País Vasco y el Estado según motivos del viaje. Año 1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

Sarbide desberdinek adierazitako arrazoimoten arabera duten pisua aztertzen badugu, aisia eta oporraldietako bidaien artean zein familiartekoei edo lagunei bisita eginikoen artean errepidea nabarmen nagusitzen dela ikus daiteke.

Dena den, arrazoi profesionalengatiko edo ikasketengatiko bidaien artean aireportua dugu sarbide nagusia.

Nazionalitateen arabera, lan-arrazoiengatik Euskadira datozenen artean nazionalitate alemaniar edo italiarreko turistek duten pisu handiagoa azpimarra daiteke.

*Si analizamos el peso que tienen las distintas vías de acceso según los tipos de motivos declarados, se observa una clara preponderancia de la carretera entre los viajes de ocio y vacaciones, así como de la visita a familiares o amigos.*

*Sin embargo, tanto entre los viajes por motivos profesionales como de estudios predomina como vía de acceso el aeropuerto.*

*Por nacionalidades se puede destacar el mayor peso que tienen los turistas de nacionalidad alemana o italiana entre los que vienen por motivos de trabajo al País Vasco.*

*Euskadi bisitatzen duten turistak bidaien arrazoiak kontuan izanda sarbidearen arabera. 1999. urtea*
*Turistas que visitan el País Vasco por motivos del viaje según vía de acceso. Año 1999*




**Iturria / Fuente:** *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

*Euskadi bisitatzen duten turistak bidaiaren arrazoiak kontuan izanda bizi diren herrialdearen arabera. 1999. urtea.*
*Turistas que visitan el País Vasco por motivos del viaje según país de residencia. Año 1999*




**Iturria / Fuente:** *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

*Euskadi bisitatzen duten turistak bidaiaren arrazoiak kontuan izanda bizi diren herrialdearen arabera. 1999. urtea*
*Turistas que visitan el País Vasco por motivos del viaje según país de residencia. Año 1999*




**Iturria / Fuente:** *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

# Turista atzerritarraren profil soziodemografikoa

# Perfil sociodemográfico del turista extranjero

Euskadi bisitatzen duten turista gehienak adin gazte eta ertaineko segmentuetakoak dira, 25 eta 44 urte bitartekoak, eta adin nagusietakoak, 45 eta 64 urte bitartekoak. Adin-segmentu hauetan zein adin zaharragoei dagozkionetan, gizonezkoen generoa nagusi da argi eta garbi, Estatu osokoaren gainetik, negozio-turismoak duen indarraren ondoren. Dena den, segmentu gazteenen artean, 24 urtetik beherakoena, esate baterako, emakumezkoen presentzia handiagoa da oro har.

Sarbideen arabera, desberdintasun esanguratsuak ikus daitezke gizonezkoen pisu handiagoari dagokionez aireportuetako adin-tarte desberdinetan. Errepidean berriz, emakumezkoaren eta gizonezkoaren aldeak nabarmen laburtzen dira familia-motako aisia-turismo baten nagusitasuna dela-eta.

*Los turistas que visitan el País Vasco pertenecen mayoritariamente a los segmentos de edades jóvenes y medias comprendidas entre los 25 y 44 años, y edades adultas entre los 45 y 64 años. Entre estos segmentos de edades, así como en el de edades más altas, el género masculino ofrece una clara preponderancia, por encima del conjunto estatal, como consecuencia de la elevada presencia de turismo de negocio. Sin embargo, entre los segmentos más jóvenes, como son los menores de 24 años, la presencia de las mujeres es por lo general superior.*

*Por vías de acceso se aprecian divergencias significativas en lo que se refiere al mayor peso de los varones en los distintos tramos de edades en aeropuertos. Mientras en carretera las diferencias varón y mujer se acortan ostensiblemente como consecuencia de la preponderancia de un turismo de ocio de tipo familiar.*

Euskadi eta Estatua bisitatzen duten turistak adin eta generoaren arabera. 1999. urtea.
*Turistas que visitan el País Vasco y el Estado según edad y género. Año 1999.*







Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

# Bisiten iraupena

# Duración de las visitas

Euskadi bisitatzen duen turismo atzerritarrak Estatu osokoarekin konparatuz duen bereizgarrietako bat iraupen laburreko bidaiek duten pisu erlatibo handiagoa da, 3 eta 7 gau bitartekoak, oporraldi eta familiarteko turismo-mota bati bereziki loturikoak, eta bi gaueko iraupen artekoak, asteburuko turismoari eta negozio-bidaiei loturikoak.

Honela, Estatuan turista atzerritarren %60ak baino gehiagok 8 eta 15 gau bitarteko egonaldiak egiten dituen bitartean, Euskadin turista-mota honek ez du guztirakoaren %20a gainditzen.

*Uno de los rasgos distintivos del turismo extranjero que vista el País Vasco frente al conjunto estatal es el mayor peso relativo que tienen los viajes de corta duración, de entre 3 y 7 noches especialmente asociados a un tipo de turismo vacacional y familiar, y de hasta dos noches de duración, asociados al turismo de fin de semana y los viajes de negocios.*

*Así, mientras en el conjunto del Estado más del 60% de los turistas extranjeros realizan estancias de entre 8 y 15 noches, en el País Vasco este tipo de turistas no superan el 20% del total.*

Bi asteko iraupenetik gorako gainerako bidaiek oso pisu erlatibo txikiak dituzte Euskadin zein Estatu osoan.

Euskadin eginiko egonaldiaren iraupena erabilitako sarbidearekin batera aztertzen badugu, errepidearen nagusitasuna azpimarratu behar da aste betetik beherako bidaietan, batez ere iraupen laburrekoenetan (bi gau arte), non errepidearen nagusitasuna ia erabatekoa den. Aireportua berriz, 8 eta 15 gauen arteko bidaietan da nagusi, errepidekoak ia bikoiztuz, eta errepidearen azpitik baina pisu garrantzitsuena duela 3 eta 7 gau bitartekoetan.

*El resto de viajes de más de dos semanas de duración tienen pesos relativos muy pequeños tanto en Euskadi como en el conjunto estatal.*

*Si analizamos la duración de la estancia en el País Vasco conjuntamente con la vía de acceso utilizada, es necesario destacar la preponderancia de la carretera en los viajes inferiores a la semana, especialmente en los de más corta duración (hasta dos noches) en los que la presencia de carretera es casi absoluta. El aeropuerto en cambio predomina en los viajes de entre 8 y 15 noches, duplicando prácticamente a los de carretera, y por debajo de carretera, pero también con un peso importante, entre los de 3 y 7 noches.*

Euskadi eta Estatua bisitatzen duten turistak egonaldiaren iraupenaren arabera. 1999
*Turistas que visitan el País Vasco y el Estado según duración de la estancia. 1999*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

Euskadi bisitatzen duten turistak egonaldiaren iraupena kontuan izanda sarbidearen arabera. 1999. urtea
*Turistas que visitan el País Vasco por duración de la estancia según vía de acceso. Año 1999.*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

## Batez besteko egonaldia[1]

## La Estancia media[1]

Egonaldiaren iraupenari buruzko emaitzek aurreikusten zuten bezala Euskadi urtetik urtera bisitatzen duten turisten batez besteko egonaldia Espainiako baxuenen artean dago. Azken urteotan oso aldakortasun txikia izan du, 1999. urtean 7,7 egunekoa izan dela, nazioko batez bestekoaren erdia, hain zuzen.

Euskadi jomugatzat duten nazionalitate nagusien araberako batez bestekoaren egonaldiaren azterketa zehatzagoa eginez, batez besteko egonaldi handienak ingelesen eta alemaniarren artean kontzentratzen dira, 9 egun inguruko batez besteko egonaldiekin. Bestalde, frantziarrek eta portugaldarrek, geografikoki hurbilago daudenek, batez besteko egonaldi askoz ere txikiagoak dituzte.

*Tal y como ya anticipaban los resultados relativos a la duración de la estancia, la estancia media de los turistas que visitan el País Vasco año tras año se sitúa entre las más bajas de España. Demostrando una escasa variabilidad a lo largo de los últimos años, que la sitúan en el año 1999 en los 7.7 días, la mitad de la media nacional.*

*En un análisis más detallado de la estancia media según las principales nacionalidades con destino al País Vasco, las mayores estancias medias se concentran entre ingleses y alemanes, con estancias medias cercanas a los 9 días. Por su parte, franceses y portugueses, más próximos geográficamente, ostentan estancias medias muy inferiores.*

Euskadi eta Estatua bisitatzen duten turisten batez besteko egonaldia bizi diren herrialdearen arabera. 1999.
*Estancia Media de los turistas que visitan el País Vasco y el Estado según país de residencia. 1999.*




Iturria / Fuente: *Movimientos Turísticos en Fronteras (Frontur). IET.*

*1.- Mugetako Mugimendu Turistikoen (Frontur) estatistikak eskainitako Euskadi bisitatzen duten turista atzerritarren batez besteko egonaldia, argitalpen honetan barne hartutakoa, et erregularki EUSTATek edo INEk bere Hoteletako Betetze-mailaren Inkestetan argitaratzen duenarekin konparatzean ikus daitezkeen aldeak ez zaizkie zor erabilitako metodologia desberdinei soilik, bai eta aztertzen diren talde desberdinei ere, kasu batean taldeko ostatu zein ostatu pribatuko turistak, eta bestean esklusiboki taldeko establezimenduetan ostatu hartutako turistak, normalean bertan igarotako gau-kopuru txikiagoari loturikoak.*

